



■ FORU ALDUNDIA

Autobus zerbitzu berria ezagutzeko bilera, bihar

2013 urte bukaeran martxan jarritako parte hartze prozesua iritsi da bukaerara. Gipuzkoako Foru Aldundiak galdeketa egin zuten, 2015erako autobus zerbitzua hobetzeko. Herritarren iritziak jaso ondoren, proiektua idatzi du. Bihar emango dute egingo diren aldaketen berri, arratsaldeko 18:30etan, Biterin. ||

■ BERRIAK MODA PASARELA

Dena prest, Hernaniko moda erakustaldirako

Atsegindegin egingo da moda pasarela, ostiral honetan, 20:00etan hasita. Berriak elkarteko dende antolatu dute, eta deskontuak eta 300 euroko balea banatuko dituzte, publikoaren artean.

UDAZKEN eta neguko denboraldian sartu gara, eta Hernanin ez da aukerarik falta, moda-modako produktuak lortzeko. Horiek zein diren jakiteko aukera ederra izango da ostiral honetan, Atsegindegin egingo den moda pasarela, iluntzeko 20:00etan hasita. Hainbat sari ere zozketatuko dira, eta dantza erakustaldia izango da.

41 modelo, pasarela gainean
Moda pasarelan denboraldi honetan moda-modan egongo diren erropak, osagarriak, makillajea... zein diren ikusi ahal izango da. Erakustaldi hori egiteko, 41 modelo ariko dira lanean, gehienak, hernaniarrak.

Batetik, umeen moda erakutsiko dute herriko 6 haurrek. Bestetik, 5 modelo

profesional izango dira; 3 neska eta 2 mutil. Bestalde, Hernaniko 6 mutil ere ariko dira, eta gainontzekoak, neska eta emakume hernaniarrak izango dira, 50 urte bitartekoak.

300 euro zozketan, eta 5 euroko deskontuak denentzat
Moda pasarelara gerturatzen direnen artean 5 euroko

deskontuak banatuko dira, pasarelan parte hartzen duten Hernaniko 17 komertzioetan gastatzeko. Azaroan erabili ahal izango dira, 40 eurotik gorako erosketetan. Bestalde, 300 euroko bale bat zozketatuko da.

Pasarelari bukaera festa giroan emateko, Shala dantza taldearen emanaldia izango da. ||

■ GEPE

Hitzaldia gaur, pentsioei buruz

Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsionisten Elkarteak antolatuta, hitzaldia emango du gaur pentsioen egoerari buruz. Eduardo Garcia Elosua, Gipuzkoako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko kideak hitz egingo du, 10:00etan Biterin. ||

■ LITERATUR SOLASALDIA

Bi saio, gaur

Literaturaren inguruan aritzeko bi saio egingo dira gaur. 19:30etan, erderaz, 7 liburu aztertuko dituzte, Jose Luis Cancho dinamizatzailearekin, eta, euskeraz, Bertol Arrietaren *Alter Ero* liburuaz ariko dira Ane Mayozeekin. ||

■ KALERATZEAK STOP

Bilera irekia, Kutxa salatzeari buruz

Hernaniko Kaleratzeak Stop taldeak bilera irekia egingo du gaur, 19:30etan Trasnpakarren duen lokalean. Kutxaren pribatizazioaren aurka salaketa kanpaina martxan jartzeari buruz hitz egingo da, eta herriko gizarte erakunde guztiei dei egingo diete parte hartzera. ||

■ ARANO

Txertoa, etzi

Gripearen aurkako txertoa jarriko da ostegunean Aranoko kontsultorioan, 11:30etatik 12:30etara. Txanda hartzeko, deitu: 948 51 08 00. ||

■ GIPUZKOAKO ODOL EMAILEEN ELKARTEA

Hernaniko 27 odol emaileri, omenaldia

Omenaldia jasoko dute odola 25, 40, 50 eta 50 baino gehiagotan eman izanagatik. Festa Urrietako Oianume jatetxean dute; aurten gainera, elkartearen 50garren urteurrena ere ospatuko dute.

ODOLA emateak duen garrantzia askotan azpimarratu izan du Gipuzkoako Odol Emailen elkarteak, Kronikan. Hernanin hileko aurreneko asteartean ematen da, eta odol emailerik gehienak, errepikatu egiten dute. Fideltasun hori saritu nahian, urtero omenaldia egiten zaie 25, 40, 50 eta 50 baino gehiagotan odola eman dutenei. Hernaniren kasuan, 27 lagunek jasoko dute aurten, errekonozimendu hori.

Lasarte-Oriako ordezkari-tzari egokitu zaio festa antolatzea. Urrietako Oianumen elkartuko dira igandean, eta aurten gainera, doble ospakizun dute, 50garren urteurrena baita. Harrera eta agurra 13:15etan izango da. Dominak 13:30etan banatuko dituzte, eta bazkaria 14:00etan hasiko da. ||

OMENDUKO DITUZTEN HERNANIARRAK

25 aldiz emateagatik:

Mari Carmen Alcorta, Mertxe Ezponda, Nicolas Jose Garcia, M^a Jose Garcia, Julio Gil, Pedro J. Gorrotxategi, Benito Honrado, Thais Martin, Pepi Olariaga, M^a Isabel Iriondo, Victor Puertas, Jose Ignacio Uria, Naiara Usandizaga eta Silvia Amigo.

40 aldiz emateagatik:

M^a Angeles Pascual, M^a Antonia Saez, M^a Isabel Santa Cruz eta Lucila Casco.

50 aldiz emateagatik:

Jose Miguel Azurmendi, Francisco Garcia, Miguel Jimenez, Pedro Marin, Victor Manuel Ocio, Mikel Leiza eta Ignacio Belosilloetxeberria.

50 aldiz baino gehiago emateagatik:

Lutxi Goya (60 donazio) eta Julen Lekuona (75 donazio).



Hernanin hileko aurreneko asteartean egiten dituzte estrakzioak.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com

Orkolaga, 57
943-55 79 01
HERNANI

ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 653 74 10 97
20120 Hernani

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Ezizgo poligonoa - Tel.: 943 55 00 89
20120 Hernani

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Chucla Kardaberaz 48 943 551793 • Gaez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURADIA
GAUR Laino batzuk agertuko dira, eta iluntzerako tenperatura jaitsiko da pixka bat. Euria ere egin lezake eguna bukatzerako. Min.12°/Max.23°
BIHAR Udazken giroa nagusi. Goizean lainoak izango dira nagusi, eta oraindik euri pixka bat egin lezake. Hala ere, atertzeraz egingo du. Min.13°/Max.18°
 (euskalmet)

UDALA BELDUR BARIK PROGRAMA

Lehiaketan parte hartzeko deia, indarkeria sexistaren kontra

Ikus-entzunezko lehiaketa da 'Beldur barik' eta 12 eta 26 urteko gazteek hartu dezakete parte, bakarka, taldeka, klasearekin, ikastolarekin...

UDALEKO Berdintasun Sailak Beldur barik programan parte hartzeraz gonbidatu nahi ditu Hernaniko gazteak. Urtero egiten da Beldur barik programa, eta helburua da indarkeria sexista prebenitzea. Emakundek antolatzen du, hiru probintzietako Diputazioekin batera, EUDEL-en babesarekin eta beste zenbait erakunderen laguntzarekin.

Adierazpen artistikoak saritzen dira

12 eta 26 urte bitarteko neska-mutulei dago zuzendua, eta adierazpen artistikoak saritzen dira. Lan horietan erakutsi behar dena da, neska eta mutulek nola egiten dieten aurre ezberdintasun egoerei, Beldur barik jarrerarekin: «hau da, errespetua, parekidesuna, askatasuna eta autonomia sustatu nahi dira».

Bi maila, parte hartzeko

Lanak aurkezteko epea zabalik dago azaroaren 12a bitartean. Parte hartzeko bi maila daude: batetik 12-17 urte bitartekoak, eta bestetik, 18-26 bitartekoak. Bakarka edo taldeka hartu daiteke parte (ikastetxe bat, gela bat, elkarte bat). Proposamenak jarre-r@beldurbarik.org helbidera

«Aurkeztutako lanek jarrera bat azaldu behar dute. Kultura matxistaren zein indarkeria sexistaren adierazpen ezberdinak aldatu behar dira. Mezua baloratuko da».

bidali behar dira. Joan den urteko edizioan 151 lan eta 1.066 gazte aurkeztu ziren: «beraz, datuek erakusten dute lehiaketak harrera ona duela, eta haunditzen dijoala».

Interneten eta sare sozialetan

Gazteekin Beldur barik jarrera garatzeko asmoz, programak presentzia du interneten eta sare sozialetan. www.beldurbarik.com web orria dute, eta Facebook, Twitter eta Tuenti kontuak ere bai. Bertan eztabaida eta hausnarketa guneak sortu nahi dira: «helburua da jarrera eta jokabide sexisten eraldaketarako espazio positibo eta erreferentia sortzea. Bertan ere, ezagutzera emanango dira kultura matxista hausten duten pertsonak eta ekimenak».

Ikus-entzunezko lehiaketa baino gehiago

Antolatzaileek azaldu dutenez, Beldur barik ez da ikus-entzunezko lehiaketa bat bakarrik: «aurkeztutako lanek jarrera bat azaldu behar dute. Kultura matxistaren zein indarkeria sexistaren adierazpen ezberdinak eraldatu behar dira, banakako zein taldekako konpromisoa isladatu behar dute. Beraz, kalitate tekniko eta artistikoaren gainetik, mezuaren kalitatea baloratu da».

Edozein adierazpen artistiko onartuko dute lehiaketarako, baldin eta ikus-entzunezko formatuan aurkezten bada.

Bi sari, kategoriako

Maila bakoitzeko bi sari banatuko dituzte: lehenengo saria jasotzen duenak 500 euro irabaziko ditu; eta aipamen bereziak 300 euro. Horrez gain, herriaren saria ere izango da, 300 eurokoa. Eta aurtan, nobedade gisa, ekoizpen onena ere sarituko da 300 euroekin; gainera 3 lurraldeetako festival artistikoen zirkuituan sartuko da.

Epaimahaiak aukeratuko ditu irabazleak; eta herriaren saria Youtubeko Beldur barik kanalean bozkatzeko aukera izango da. ||



ARRANTZA

Pieza haundiena, Carlos Ramirezek

Aurreko igandean, elkarte arteko arrantza txapelketa jokatu zen Zumaian, Anade elkarteak antolatuta. Itsasoko kostako modalitateko txapelketa izan zen. Bertan izan zen Txantxangorri elkarte ere, eta pieza haundienaren saria jaso zuen Carlos Ramirezek: 882 gramoko burriota harrapatu zuen. Txapelketan, 10garren izan zen Ramirez, eta 48garren Santi Egibar. Lehenengo hiru sailkatuak, berriz, Jose Ferrara (Antxeta), Jose Maria Larrañaga (Antxeta) eta Iker Arrillaga (Zurriola) izan ziren. ||

ELKARTE ARTEKO MUS TXAPELKETA

Beste seina partidu, gaur eta bihar

Elkarte Arteko XXX. Mus Txapelketako beste 12 partidu jokatu dira aste honetan. Gaur 6, eta bihar beste 6. ||

GAUR	BIHAR
Txalaparta A - Santa Barbara A	Goiz Eguzki A - Etxeberri A
Goiz Eguzki A - Txantxangorri A	Gure Txoko A - Santa Barbara A
Elur Txori A - Elizatxo A	Peña Otaño A - Karobi A
Txantxangorri B - Txaparta	Karobi B - Peña Otaño B
Goiz Eguzki B - Sgastialde B	Etxeberri B - Txantxangorri B
Gure Txoko B - Elizatxo B	Ur Mia B - Goiz Eguzki B

BAKAILAO ASTEA

Txili eta BCCeko ikasleak, onenak

Bukatu da Bakailao Astea, eta banatu dira sariak. Tabernen arteko pintxo lehiaketa Txilik irabazi du; Guria izan da bigarren; eta Irintzi, hirugarren. Bakailaoa pil-pil eran prestatzen, berriz, Basque Culinary Centerreko ikasleak izan dira onenak, Joseba Nuñez eta Kerman Gutierrez. Bigarrenak, Jose Manuel Irigoien eta Tomas Nuñez. Eta hirugarrenak, Javier Vazquez eta Julio Gerrero. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

II. URTEURRENA
Jose Arnaiz Martinez
Ixiltasunean izan dira zure lana eta bizitza, beti izango zara gure oroimenean eta bihotzean.
ETXEKOAK
 Urteurreneko meza, **GAUR, ASTEARTEA, arratsaldeko 19:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2014ko urriaren 21ean

IRAGARKI MERKEAK

Hernani-Zikuñaga. 100 m²ko pisua salgai. 3 gela eta trastelekua. Kanpoaldera, kalefakzioa eta igogailuarekin. Apartakaleku pribatua. 30 m²ko garajea. **126.000 €.** Deitu: **600 595 890**

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

MODA PASARELA HERNANI

2014ko URRIAK 24

20:00 ATSEGINDEGI

SHALA DANTZA TALDEAREN EMANALDIAREKIN

ANTOLATZAILEA: **BERRIAK**

300 €

ZOKKETATZEN DITUGU GURE DENDETAN GASTATZEKO

DESKONTU BALEETAN

3000 €